



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

BASERRITARREN ERREGELAMENDUAREN ONESPENARI EXPEDIENTEA

MERKATU BURUZKO

- Hasierako onarpena: 2012.07.17ko Osoko Bilkura
- Iragarpenaren argitaratzea: B.A.O, 144. zk., 2012.07.26
- Jendaurreko informazio epea: 2012ko urriaren 1erarte
- Alegazioak: BAI (1)
- Behin betiko onarpena: 2012.10.23ko Ozoko Bilkura
- Testu osoa argitaratzea: B.A.O., 230. zk., 2012.11.30.
- 32. Artikuluaren aldaketa: 2013.06.18ko Osoko Bilkura.
- Iragarpenaren argitaratzea: B.A.O., 174.zk. 2013.09.11.

AURKIBIDEA

AURRETIAZKO TITULUA. APLIKAZIO ESPARRUA

- 1. ARTIKULUA: HELBURUA 4
- 2. ARTIKULUA: KONTZEPTUA 4

I. TITULUA. SALMENTARAKO BAIMENDUTAKO PRODUKTUAK ETA POSTUAK

- 3. ARTIKULUA: SALMENTAKO PRODUKTUEI BURUZKOA 4
- 4. ARTIKULUA: SALMENTAKO POSTUEI BURUZKOA 4
- 5. ARTIKULUA: ELIKADURA PRODUKTUEN SALMENTARAKO POSTUEN BALDINTZEI BURUZKOA 5

II. TITULUA. MERKATU PLAZAN SALTZEA.

I. KAPITULUA. SALTZEKO BALDINTZAK 5

- 6. ARTIKULUA 5
- 7. ARTIKULUA: MERKATU PLAZAKO EGUNAK ETA ORDUTEGIAK 6
- 7. ARTIKULUA: POSTUAK ETA PRODUKTUAK 6

II. KAPITULUA. UDAL BAIMENAK 7

- 9. ARTIKULUA: DOKUMENTAZIOA 7

III. KAPITULUA. PROZEDURA 8

- 10. ARTIKULUA 8
- 11. ARTIKULUA: ESKAEREN ALDIA 8
- 12. ARTIKULUA 8
- 13. ARTIKULUA 8
- 14. ARTIKULUA 9
- 15. ARTIKULUA 9
- 16. ARTIKULUA: ESLEITZEKO IRIZPIDEAK 9
- 17. ARTIKULUA 10

IV. KAPITULUA. UDAL BAIMENAREN EZAUGARRIAK 10

- 18. ARTIKULUA 10
- 19. ARTIKULUA 10

V. KAPITULUA. BAIMENA IRAUNGITZEA 11

- 20. ARTIKULUA 11

III. TITULUA. SALMENTAN ARITZEN DIREN PERTSONEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

- 21. ARTIKULUA: ESKUBIDEAK 12
- 22. ARTIKULUA: BETEBEHARRAK 12

IV. TITULUA. ERREGIMEN ZEHATZAILEA

I. KAPITULUA. KALEZ KALEKO SALMENTAREN ZAINZA ETA IKUSKAPENA 14

- 23. ARTIKULUA 14

II. KAPITULUA. PROZEDURA ZEHATZAILEA 15

- 24. ARTIKULUA 15
- 25. ARTIKULUA 15
- 26. ARTIKULUA 15

III. KAPITULUA. HUTSEGITEAK ETA ZIGORRAK 15

- 27. ARTIKULUA: ARAU-HAUSTEAK 15
- 28. ARTIKULUA: ZIGORRAK 16
- 29. ARTIKULUA: ZIGOR OSAGARRIA 16

• 30. ARTIKULUA: ZIGORREN MAILA	16
• 31. ARTIKULUA: PRESKRIPZIOA	17
V. TITULUA. MERKATU PLAZAREN ANTOLAKETA	
• 32. ARTIKULUA	17
• 33. ARTIKULUA	17
• 34. ARTIKULUA: EUSKARA ERABILTZEA	18
XEDAPEN IRAGANKORRA	18
XEDAPEN INDARGABETZAILEA	18
AZKEN XEDAPENA	18
I. ERANSKINA	19

BASERRITARREN MERKATU ERREGELAMENDUA

AURRETIAZKO TITULUA

APLIKAZIO ESPARRUA

1. ARTIKULUA: HELBURUA

Araudi honen helburua Bizkaiko ustategietako eta Durangoko merkatu plazan baimenduta dauden nekazaritzako produktuen (zuzenean ekoizitakoak edo eraldatutakoak) salmenta arautzea da.

Era berean, aurreko paragrafoan jasota ez dauden, baina I. eranskinean jasota dauden eta araudi hau indarrean sartu denean Merkatu plazan saltzen diren beste produktu batzuen salmenta ere arautzen du.

2. ARTIKULUA: KONTZEPTUA

Merkatu plaza izenekoan saltzeko baimena jaso dezakeena merkataritza-esparrutik kanpo egiten dena edo salmenta tradizionala da. Horretarako egokiak diren postu desmuntagarrietan egin ohi du ohiko saltzaileak edo noizbehinkakoak eta hura pertsona fisikoa edo juridikoa izaten da. Salmenta egin ahal izateko, beharrezkoa izango da Udalaren baimena. Baimen hori besterenezina izango da eta, gehienez, urtebeteko indarraldia izango du.

I. TITULUA:

SALMENTARAKO BAIMENDUTAKO PRODUKTUAK ETA POSTUAK

3. ARTIKULUA: SALMENTAKO PRODUKTUEI BURUZKOA

Eskuduntza duten agintarien arabera, osasun arloko arriskurik biltzen ez duten eta indarrean dagoen araudiak erregimen ibiltarian merkaturatzea debekatzen edo mugatzen ez duen produktuen salmenta baimendu ahal izango da. Araudi honetako I. eranskinean jasotako produktuen txikizkako salmenta bakarrik baimenduko da.

4. ARTIKULUA: SALMENTAKO POSTUEI BURUZKOA

1. Baimen bakoitzean, eskuduntza duen organoak zehaztuko ditu honako hauek: salmentapostuen kopurua, bakoitzeko salmentarako artikulak, postuen gehieneko eta gutxieneko neurriak eta gainerako baldintzak.

2. Baimenen titularrek beren instalazioak zehaztutako baldintzen arabera egokitu beharko dituzte. Horrekin lotuta, kontuan izan behar da instalazio desmuntagarriak eta garraiatzeko errazak izango direla eta segurtasuneko, osasungarritasuneko eta apaingarri publikoko baldintzak bete beharko dituztela.

3. Merkatuak funtzionamendu eta kontrol egokia izan ditzan, Udalak eskala-planoa izango du. Bertan zehaztuko du postu guztien banaketa zenbakitua eta haien zenbakiek emandako txartel eta baimenekin bat etorri beharko dute. Plano hori eranskin gisa entregatuko da ematen den baimen bakoitzean.

5. ARTIKULUA: ELIKADURA PRODUKTUEN SALMENTARAKO POSTUEN BALDINTZEI BURUZKOA

Elikadura-produktuen salmentak izaera berezia duenez, Ordenantza honetan salmenta-postu guztietarako ezartzen diren baldintza orokorrez gain, produktu mota hauek igortzen dituzten postuetan merkaturatutako produktuen araudi espezifikoetan ezarritako osasun eta higie arloko baldintzak eta beste era batekoak bete beharko dira. Bizkaiko tokian tokiko nekazaritzako elikagaien azoketara eta merkatuetara joateko Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako Eskuliburuan ezarritako gomendioak beteta.

II. TITULUA:

MERKATU PLAZAN SALTZEA

I. KAPITULUA

SALTZEKO BALDINTZAK

6. ARTIKULUA: Durangoko Merkatu plazan salmenta egiteko, hauek bete behar dira

1. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagozkion epigrafeetan alta emanda egotea eta nekazaritzako, abeltzaintzako, arrantzako eta basoko erregimen berezian ordainketak egunean izatea edo, dagokionean, BEZean alta emanda egotea, eta dagozkion BEZaren aitorpenak egitea.

2. Gizarte Segurantzako dagokion erregimenean alta emanda egotea eta kuotaren ordainketa egunean izatea. Pertsona juridikoen kasuan, Gizarte Segurantzaz izaera horrekin izena emanda egotea, langileek aseguruia izatea eta kuoten ordainketa egunean izatea.

Gaur egun merkatura joaten diren erretirodunei han jarraitzea baimenduko zaie, baina ez berriei.

3. Merkaturatutako produktuekin lotutako araudi espezifikoek ezarritako higie eta osasun arloko baldintzak eta beste erabatekoak betetzea.

4. Udalaren baimena izatea.

5. Dagozkion tasen ordainketa egitea.

6. Dagokionean, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko ustategien erregistroan alta emanda egotea.

7. ARTIKULUA: MERKATU PLAZAKO EGUNAK ETA ORDUTEGIAK

Merkatua larunbat goizetan egingo da. Udalak merkatuko eguna aldatzeko edo, interes publikoek hala eskatzen dutenean, bertan behera uzteko eskubidea izango du. Kasu honetan, titularrek ez dute kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik izango.

Hauxe da merkatuaren ordutegia

1. Postuak goizeko 06:00etatik 08:00ak bitarte jarri beharko dira. Horixe izango da postua muntatu ahal izateko materialak eta merkantzia deskargatzeko unea.

2. Salmenta 08:30etik 13:30 bitartean egingo da.

3.- Postuak 13:30etik 14:00ak bitarte jaso beharko dira.

06:00-08:30: postuak instalatzea.

08:30-13:30: salmentarako aldia.

13:00-14:00: postuak jasotzea.

8. ARTIKULUA: POSTUAK ETA PRODUKTUAK

1. Udalak eskainiko ditu merkaturan erabili beharreko mahaia. Saltzaileren batek bere mahaia erabili nahiko balitu, Udalak eskainitakoen neurri berberak izan beharko dituzte.

2. Nekazaritzako ekoizleak une bakoitzean landutako eremuaren arabera mahaia kopurua izateko eskubidea izango du. Titular bakoitzeko gehieneko mahaia kopurua hirukoa izango da.

3. Erabat debekatuta dago ordenantza honetako 1. artikuluan bilduta ez dauden produktuak saltzea, i. eranskinean jasotakoak izan ezik.

4. Ekoizleak edo biltzaileak azken kontsumitzaileari zuzeneko horniketa bidez merkaturatutako espezie mikologikoei dagokienez, derrigorrezkoa da generoa eta espeziea kartel baten bidez identifikatzea, eta perretxikoak identifikatzeko arduradunaren izena zehaztea. Durangoko Udala haien identifikazioan gerta daitekeen akatsetik erator daitekeen erantzukizunetik salbuetsita egongo da. Ontziratutako espezie mikologikoen kasuan, behar bezala identifikatuta egon eta dagokion osasun-erregistroa izan beharko dute.

5. Ustez propietate sendagarriak dituzten landareei eta haiekin prestatutako produktuei dagokienez, Durangoko Udala salbuetsita geratuko da haien identifikazioan eta/edo hornikuntzan gerta daitekeen akatsetik eratorritako edozein erantzukizunetik.

6. Debekatuta dago merkantziak eta hondakinak postutik kanpo uztea eta edozein elikagai mota zuzenean lur gainean jartzea. Horrez gain, debekatuta egongo da jendearen pasabidea oztopatzea.

7. Udalak zehaztuko du postu berrien kokapena.

8. Udalak postuen banaketa aldatu ahal izango du baldin eta merkatu osorako onuragarria izan daitekeela uste badu.

II. KAPITULUA

UDAL BAIMENAK

9. ARTIKULUA: DOKUMENTAZIOA

Udal-lizentzia lortzeko, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

1. Behar bezala betetako instantzia normalizatua datu hauekin:

a. Eskatzailearen izen-abizenak. Eskatzailea pertsona juridikoa bada:

-Izena eta legezko ordezkariaren izen-abizenak.

-Erakundearen kontura baimena erabili behar duen erakundeko bazkidearen edo langilearen izen-abizenak, helbidea eta NANA

b. Beharrezko metro kopurua.

2. Eskatzailearen NANaren fotokopia eta Identifikazio Fiskaleko Kodea (pertsona juridikoa denean).

3. Postuaren titulartasuna eskatu duenaren NANaren fotokopia, hura eskatzailearen ezberdina denean.

4. Noizbehinka han lan egiteko titularraren baimena duten edo/baimenduta dauden pertsonen NANaren fotokopia.

5. Altaren ziurtagiria eta Gizarte Segurantzako kotizazioen sarrerako azken ordainagiria.

6. Altako egiaztagiria eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagokion azken ordainagiria.

7. Pertsona juridikoen kasuan, dagokion merkataritza-erregistroan behar bezala izena emanda dagoela egiaztatzen duen enpresaren eratzeko eskritura. Horrez gain, ordezkaritza egiaztatu beharko da zuzenbidean baliozkoa den edozein baliabideren bidez.

8. Higiene eta osasun arloko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentua eta, hala eskatzen duten elikagaien kasuan, langileek elikagaien manipulazio arloko prestakuntza jaso dutela egiaztatzen zuen ziurtagiria.

9. Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan sartuta dauden langileek hori egiaztatu beharko dute dagokion dokumentuaren bidez.

10. Kotizatuz gero, Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Erregimenaren fotokopia.

11. Salmentan jarritako produktuen zerrenda.

12. Baimena eskatu den aldiaren zehaztapena. Horretarako, hasierako eguna eta hilabetea, eta amaitzeko data zehaztu beharko dira.

III. KAPITULUA

PROZEDURA

10. ARTIKULUA:

Eskaera eta dagozkion dokumentuak jasotakoan, eskuduntza duen udal-organoak eskaera ebatziko du aurkeztutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, eta baimendu edo ukatu egingo du.

11. ARTIKULUA: ESKAEREN ALDIA

Postuak esleitu ahal izateko, hilabete bateko epea egongo da urritik azarora bitartean. Tarte horretan, informazioa eskaini, eskaerak jaso eta sor daitezkeen zalantzak argituko dira.

12. ARTIKULUA:

Edonola ere, elikagaiak saltzeko baimena eman ahal izateko, beharrezkoa izango da eskuduntza duen agintaritzak aldeko txostena ematea.

13. ARTIKULUA:

Udal-baimenak honako hauek bilduko ditu espresuki

- a. Baimenaren indarraldia.
- b. Baimenaren titularraren izen soziala edo izen-abizenak, eta haren izenean jarduera gauzatzeko baimena duen pertsona edo pertsonak.
- c. Baimendutako produktua/k.
- d. Merkatuko postuaren zenbakia.
- e. Jarduera gauzatzeko datak eta ordutegiak.

f. Beteko duen azalera.

14. ARTIKULUA:

1. Salmentarako baimena duten saltzaile guztiek txartel bat izango dute. Txartelean, gutxienez, datu hauek jasoko dira:

a. Titularraren eta, daudenean, baimendutako pertsonaren/en izen soziala eta/edo izen-abizenak.

b. Salmentarako baimenaren balio-aldia.

c. Baimendutako produktua/k.

d. Postuaren zenbakia eta jarduera gauzatzeko baimendutako tokia eta neurria

e. Identifikazio-txartela. Baimendutako pertsonen argazkia izan beharko du eta beti ikusgai egon beharko du. Bertan zehaztuko da zer ekoizpen mota eskaintzen duten.

2. Txartela uneoro egongo da jendearentzat eskuragarri eta kartelak erraz ikusteko tokian egon beharko du.

3. Dokumentazio horrekin batera, Ordenantza honen ale bat banatuko da.

15. ARTIKULUA:

1. Baimenek eskatu ahalako izaera izango dute eta, horrenbestez, Udalak baliogabetzeko aukera izango du egokitzen jotzen duenean hura eragin zuten baldintzak desagertuko balira edo Ordenantza hau edo aplikagarria den araudia beteko ez balitz. Hori gertatuz gero, ez da inolako kalte-ordainik edo konpentsaziorik eratorriko.

2. Aldi beraren baitan, ez zaio saltzaile, familia-unitate eta/edo enpresa berari baimen bat baino gehiago emango salmenta gauzatzeko.

16. ARTIKULUA: ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Merkatu plazako salmentarako udal-baimenak esleitzeko baldintzak arautzen dituen lehen-tasuneko hurrenkera honako hau da:

1. artikuluko 1. paragrafoak xedatutakoa betetzen duten eskatzaile guztiek izango dute salmentarako eskubidea merkatuko plazan disponibilitatea dagoen bitartean. Esleipenerako hurrenkera taula honetan lortzen duten puntu kopuruaren arabera zehaztuko da:

A.1. PRODUKTUEN JATORRIA (gehienez, 7 puntu):

Durango udalerrian egindako produktuen laborantza edo prestaketa. 4 puntu

Durangaldeko beste udalerrri batzuetan egindako produktuen laborantza edo prestaketa. 3 puntu

Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako produktuen laborantza edo presta keta. 2 puntu

Gainerako lurraldeetan egindako produktuen laborantza edo prestaketa. 1 puntu

Ziurtatutako produktu ekologikoen ekoizleak. 3 puntu

A.2 ESKATZAILEAREN ERROLDATZEA:

Durango udalerrian erroldatuta egotea. 2 puntu

A.3 ANTZINATASUNA:

Durangoko merkatuko plazan salmentako merkataria izatea azken hiru urteotan. Urte natural bakoitzeko 1 puntu (gehienez, 3 puntu).

Plazan salmentarako merkataria izatea. 1 puntu

Ez dira zenbatuko urte bateko zatikiak.

Durangaldetzat hartuko da udalerrri hauek biltzen duten lurralde-esparrua: Abadiño, Zornotza, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar.

17. ARTIKULUA:

Urtean zehar hutsik geratzen diren postuak eskatzaileen artean esleituko dira. Horretarako, eskaera indarrean duten eta baldintza guztiak betetzen dituzten, baina aurretik baimena lortu ez zuten eskatzaileak hartuko dira kontuan.

IV. KAPITULUA

UDAL BAIMENAREN EZAUGARRIAK

18. ARTIKULUA:

Udal-baimena pertsonala eta besterenezina da. Dena den, titularraren senideek eta/edo behar bezalako baimena duten langileek erabili ahal izango dute.

19. ARTIKULUA:

1. Udal-baimenaren gehieneko indarraldia urtebetekoa izango da eta abenduaren 31n iraungiko da, sasoian sasoiko produktuen salmentarako baimenaren kasuan izan ezik (denboraldia amaitzean iraungiko da).

2. Baimena berritzeko, derrigorrezko dokumentuak aurkeztu eta eskaera egin beharko da baimen-eskaera egiteko helburuarekin zehaztuko den epearen baitan.

V. KAPITULUA

BAIMENA IRAUNGITZEA

20. ARTIKULUA:

Udalak baimena baliogabetu dezake jarraian ageri diren kasu hauetan:

1. Titularrak baja eskatzea.
2. Titularraren heriotza edo enpresa desegitea, dagokionean. Baimenaren titularraren heriotza gertatuz gero, baimena oinordekoen esku geratuko litzateke titulartasun-aldaketaren bidez.
3. Baimena eskuratzeko baldintzak ez betetzeak baimena baliogabetzea esan nahiko du baldintzak ez direla bete egiaztatu ondoren.
4. Postua berralokatzea.
5. Udal-emakidarako eskatutako baldintzak galtzea.
6. Baimendu gabeko produktuen salmenta.
7. Salmentarako esleitutako eremutik kanpo produktuak saltzea.
8. Dagozkien tasak ez ordaintzea (premiamentuko hiru prozeduraren pean eroriz gero).
9. Urtean 4 astez jarraian edo esleitutako aldian jarraian izan gabe 4 aldiz merkatura ez bada joaten inolako justifikaziorik gabe.
10. Urtea amaitzea.
11. Dagokion udal-organoak aintzat hartutako beste edozein arrazoi justifikagarri.
12. Beste batzuen produktuen birsalmenta; hau da, ustiategian bertan ekoitzi ez direnak (nekazaritza-ustiategien kasuan)

III. TITULUA

SALMENTAN ARITZEN DIREN PERTSONEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

21. ARTIKULUA: ESKUBIDEAK

1. Merkatu plazan kalez kaleko salmentarako udal-baimenen titularrak diren pertsonen eskubide hauek izango dituzte:

- a. Erabiltzeko baimena duten salmenta-lekuak okupatzea.
- b. Baimenean adierazitako edo ordenantzan bildutako ordutegian eta baldintzetan, publikoki eta modu baketsuan lantzea Udalak baimendutako salmenta-jarduera.
- c. Tokiko agintarien eta Udaltzaingoaren behar bezalako babesa izatea baimendutako jarduera normal garatzeko.
- d. Erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztea jarduera egitea baimentzen den merkatuak hobeto funtziona dezan.
- e. Udalak identifikazio-txartela igortzea.
- f. Salmenta-jarduera bere kabuz edo bere familia-unitatekoak diren edo jarduera horretan enplegatuta dituen pertsona baimenduek egitea baldin eta Gizarte Segurantzaren titularraren kontura alta-egoeran emanda badaude. Baimena eskatzeko unean Udalari jakinarazi beharko zaio atal honetan aipatzen diren pertsonen nortasuna.
- g. Postua zer lekutan kokatuko den jakitea.
- h. Salmenta egiteko baimena jaso duen data Udalak ez aldatzea, jaiegunarekin edo gertakizun bereziarekin bat datorrenean izan ezik. Kasu horretan, Udalak horren berri eman beharko du behar adinako aurrerapenarekin.

22. ARTIKULUA: BETEBEHARRAK

Udal-baimenen titularrak diren pertsonen zehaztapen hauek bete beharko dituzte:

- a. Salmenta horretarako ezarritako eta jarduera mota horretarako egokitutako postuetan eta instalazioetan egin beharko dute.
- b. Postuetako titularrek ikusteko moduko lekuan instalatuko dute edo udal-agintaritzarako eskuragarri izango dute udal-baimena. Betebehar hau ez betetzeak eta baimenean zehaztu gabeko produktuak saltzeak postua kautelaz kentzea ekarriko du, aplikagarria izan daitekeen zehazpen-espeditentea abian jartzeari kalterik egin gabe.
- c. Dagokion tasa ordaindu izanaren ziurtagiririk gabe ezingo da eremura sartu, Durangoko Udaleko Ordenantza Fiskaletan ezarrita dagoen moduan.
- d. Merkataritza-jardueraren baitan, saltzaileek uneoro merkataritza-lanaren, merkatuaren diziplinaren eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsaren gainean indarrean dagoen araudiak ezarritakoa aintzat hartu beharko dute.

e. Salmenta-lekuan kartelak eta etiketak izango dituzte eta, haietan, ikusteko moduan bistaratu dira eskainitako produktuen salmenta-prezioak. Salgai dauden produktuen prezioa modu esplizituan eta agerian erakutsiko da eta alor honetan indarrean dagoen legedia bete beharko da uneoro.

Soltean saltzen diren edo salmenta-prezioa elikadura-produktuaren kantitate edo bolumenaren arabera zehazten den produktuetan, prezioa neurri-unitate baten arabera adieraziko da. Era berean, artikulua guztiak bistan izango dituzte, eta horien zati bat ezingo dute albo batera utzi, aukeratu edo ezkutatu.

f. Postuetako titularrak bertan egongo dira merkatua martxan den orduetan; bertan, behar bezala baimendutako pertsonen lagun diezaiekete.

g. Behar bezala egiaztatuta dauden udal-agintariek edo -langileek hala eskatuta, saltzaileek eskatutako dokumentazioa eman beharko diete.

h. Baimenen titularrek salmentarako perimetroak eta lekuak errespetatuko dituzte.

i. Baimendutako produktuak saltzea; horrekin lotuta, produktuen birsalmenta espresuki debekatuta dago.

j. Pisu bidez neurtzen diren artikulak saltzen dituzten postuek arauzko baskula izan beharko dute. Hartutako neurrien zehaztasuna egiaztatu ahal izango du Udalak.

k. Salmentan aritzen direnek, interesdunak hala eskatzen baldin badu, salmentaeragiketaren ordainagiria edo ziurtagiria eman beharko dute. Haren gutxieneko edukia honako hau izango da:

- Datu pertsonalak.
- NAN edo AIZ.
- Helbidea.
- Produktua/k.
- Prezioa eta data.
- Kopurua.
- Sinadura.

l. Elikagaiak ezingo dira zuzenean lurrean utzi eta ezingo dira produktuak esleitutako postutik kanpo saldu. Horrez gain, ezingo da postuen arteko korridoreetako zirkulazio librea oztopatu.

m. Ezingo da esleitutakoa baino leku gehiago okupatu eta ezingo da postua lekuz mugitu, lekua libre egonda ere.

n. Merkataritza-jardueraren ondorio gisa sortutako hondakinak, ontziak, bilgarriak eta gainerako zaborrak bildu egingo dira eta, ondoren, horretarako kokatutako edukiontzietara botako dira. Edukiontzi horien egoera ezingo da salmenta-jardueraren ondorioz aldatu.

o. Postuko instalazioak egoera onean mantendu beharko dituzte.

p. Postuetako titularrek zoladuran, argietan edo antzekoetan eragin ditzaketen kalteak konpondu beharko dituzte.

q. Debekatuta dago aparailu akustikoak erabiltzea produktuen eskaintzaren publizitatea egiteko.

r. Merkatuak behar bezala funtziona dezan, Ordenantza honek eta gai horren inguruan indarrean dagoen legediak xedatutakoaren arabera, agintariak, udal-funtzionarioak edo lan horiek eskuordetu zaizkion erakundeak emandako arauak betetzeko betebeharra izango dute udal-baimen horien titularrek.

IV. TITULUA

ERREGIMEN ZEHATZAILEA

I. KAPITULUA

KALEZ KALEKO SALMENTAREN ZAINZA ETA IKUSKAPENA

23. ARTIKULUA:

1. Udalak Ordenantza honetan eta indarrean dauden higiene, osasun eta segurtasun arloko arauetan ezarritako betebeharrak betetzen direla zainduko du horren inguruan beste administrazio publiko batzuek dituzten eskuduntzei kalterik eragin gabe.

2. Zaintza-funtzio horien baitan, Udalak produktuak, jarduerak eta instalazioak ikuskatuko ditu. Horrekin lotuta, saltzaileei funtzio horiekin lotuta beharrezkotzat jotzen duen edozein informazio eskatu ahal izango die. Udalak izendatutako langileek baimena izango dute produktua eta instalazioak kontrolatzeko. Udalak eskubidea izango du ustategia bisitatzeko. Bisita horren helburua nekazariak denboraldi bakoitzean landutako produktuak egiaztatzea izango da. Ikuskapena egin ostean, Udalak fitxa prestatuko du ustategiaren ezaugarriak, metro koadro kopurua, produktuak eta abarrak zehaztuz.

3. Salgai jarritako produktuak iruzurra balira haien kalitatea edo kopurua kontuan hartuta, faltsifikatuta badaude edo merkaturatzeko (birsalmenta barne) gutxieneko baldintzak betetzen ez badituzte, espedienteari hasiera emateko agintzen duen agintaritzak haren kautelazko kontrola adostu ahal izango du aplikagarria den araudiak xedatutako baldintzen arabera.

II. KAPITULUA

PROZEDURA ZEHATZAILEA

24. ARTIKULUA:

Merkataritza Jarduera arautzen duen 1994ko maiatzaren 27ko 7/1994 Legeak ezarritakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako organoek duten eskumen zehatzaileari kalterik eragin gabe, Ordenantza honetan ezarritakoaren araberrako arau-haustea Udalak zigortuko ditu.

25. ARTIKULUA:

Ordenantza honetan aurrez ikusitako arau-hausteei zigorrak ezartzeko eta ebazpenen aurka ezar daitezkeen helegiteetarako prozedura indarrean dagoen administrazio-prozedurari buruzko araudiak ezarritakoa izango da.

26. ARTIKULUA:

Merkatu plazan saltzeko udal-baimenen titularrak izango dira haiek, haien familiartekoei edo soldatapekoek edo salmenta lekuan zerbitzuak eskaintzen dituzten baimenduek (Ordenantza honetan ezarritakoaren aurka) egindako arau-hausteen arduradunak.

III. KAPITULUA

HUTSEGITEAK ETA ZIGORRAK

27. ARTIKULUA: ARAU-HAUSTEAK

Arau-haustea arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

1. ARINAK.

Arau-hauste arintzat hartzen da Ordenantza honetako xedapenak aintzat ez hartzea, izaera ekonomikoko zuzeneko garrantzirik gabe eta kontsumitzaileentzako kalterik izan gabe, larri edo oso larri gisa kalifikatuta ez baldin badaude, betiere, eta zehazki hauek:

- a. Jarduera betetzeko ordutegiak ez betetzea.
- b. Aplikagarria den osasun arloko araudia ez betetzea modu arinean.
- c. 4 astez baino gutxiagoz justifikatu gabeko arrazoia dela eta postuan ez egotea.

2. LARRIAK.

Arau-hauste hauek hartuko dira larritzat:

- a. Arau-hauste arinak errepikatzea.
- b. Araua hausten duten jarduerak gelditzeko eskaerari ez erantzutea.
- c. Izaera ekonomikoko zuzeneko garrantzia dutenak edo kontsumitzaileei kalteak eragiten dizkietenak, eta zehazki, birsalmenta.
- d. Osasun arloko arau-hauste larriak egiten dituztenak.
- e. Salmenta derrigorrezko udal-baimenik gabe egitea.
- f. Ordenantza ezarritako zaintza-funtzioak betetzen ari diren agintariak edo agenteak eskatutako informazioa lortzeari edo datuak emateari ezezkoa esatea edo aurre egitea, edo informazio okerra, osatugabea edo gezurrezkoa ematea.
- g. Jarduerak gelditzearen inguruko eskakizuna ez betetzea.

28. ARTIKULUA: ZIGORRAK

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsarako legedi orokorrean aurrez ikusitakoa aplikatzeari kalterik egin gabe, arau-hausteak Merkataritza Jarduerari buruzko 1994ko maiatzaren 27ko 7/1994 Legeak xedatutakoaren arabera zigortuko dira, eta Udalaren esku egongo da arau-hauste arinak eta larriak zehatzea taula honen arabera:

ARAU-HAUSTE ARINAK. Arau-hauste arinetan zigor hauek aplikatuko dira:

- a. Ohartarazpena
- b. eta/edo 100,00 € arteko isuna.

ARAU-HAUSTE LARRIAK. Arau-hauste larrietan zigor hauek aplikatuko dira:

- a. 3000,00 € arteko isuna
- b. Merkatutik betirako kanporatzea.

29. ARTIKULUA: ZIGOR OSAGARRIA

Espedientearen ebazpena egitea dagokion agintariak zigor osagarri gisa adostu dezake iruzurrezko salgaiak, identifikatu gabekoak edo merkaturatzeko ezarritako gutxieneko eskakizunak betetzen ez dituztenak konfiskatzea.

30. ARTIKULUA: ZIGORREN MAILA

Edonola ere, zigorrak mailakatzeko, saldutako produktuen izaera, sortutako kalteak, arau-haulearen asmoa edo arau-hauste hori errepikatzea, eta arau-hausteak izan duen garrantzi soziala hartuko dira kontuan.

31. ARTIKULUA: PRESKRIPZIOA

1. Ordenantza honetan aurrez ikusitako arau-hausteak eta zigorrak, arinak izanez gero, sei hilabetera preskribatuko dira, eta larriak izanez gero, urtebetera.

2. Zigorra ezartzen duen ebazpenak indarra hartzen duen hurrengo egunetik hasita hasiko da zenbatzen zigorraren preskripzio-epea. Interesduna jakinaren gainean dagoela, exekuzioaren prozedurari ekiteak preskripzioa etengo du, eta epea berriro zenbatzen hasiko da hilabete baino gehiagoan geldirik baldin badago arau-hausleari egotz ezin dakizkion arrazoiengatik.

V. TITULUA

MERKATU PLAZAREN ANTOLAKETA

32. ARTIKULUA.

Merkatuaren antolaketa eta zuzendaritza Merkatuko Batzordeari lotuta egongo da. Batzordekideak hauek izango dira:

- Garapen Iraunkorraren eta Herritarren Partaidetzaren batzordeko Zinegotzi-Presidenteak.
- Durangoko Udaleko bi ordezkari.
- "Urkiola" Landa Garapenerako Elkarteko ordezkari bat.
- Saltzaileen ordezkari bi (bata baserritarren ordezkaria eta bestea gainontzeko saltzaileena).
- "Dendak Bai" Durangoko Merkataria Elkarteko ordezkari bi.

33. ARTIKULUA.

Batzordearen funtzioak izango dira hauek:

- Salmentarako baimen-eskaerei buruzko informazioa ematea.
- Merkatuan jardueraren garapena kontrolatzea.
- Bertako produktuen merkaturatzea hobetzeko eta haiei mesede egiteko jarduera berriak bultzatzea eta garatzea.
- Salmenta-baimenen titularren artean gertatzen diren arazoaren salerosketa arloko konponbidea ematea. Konponbide hori lortu ezin denean, Udalari eman beharko zaio horren berri dagozkion administrazioko ahalmenak erabil ditzan.
- Merkatuko arauen kontrakoak diren jokabideen berri ematea Udalari.

34. ARTIKULUA: EUSKARA ERABILTZEA

1. Produktuetan ipinitako oharrak edo etiketak euskaraz idatziko dira.
2. Saltzaileei zuzendutako idatziak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira. Bigarren aukera hautatuz gero, euskarazko bertsioari emango zaio lehentasuna.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1. Ordenantza hau indarrean sartu baino lehen lortutako udal-baimenen titularrek beren jarduerarekin aurrera jarraitu ahal izango dute haren babesean 2012ko abenduaren 31ra arte.

2. Ordenantza hau indarrean sartzean izapidetze fasean zegoen eta aurrez hasitakoak ziren baimena emateko espedienteak bertan ezarritako ebazpenen arabera izango dira. Horretarako, interesdunei, dagokionean, eska daitekeen dokumentazio osagarria aurkezteko eskatuko zaie.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen denetik aurrera, indargabetuta geratuko dira orain onartu den testuaren aurkakoak diren, edo harekin bateraezinak diren edo kontraesanean dauden maila baxuagoko edo maila bereko xedapenak.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean

I ERANSKINA

Merkatu plazan salduko diren produktuak araudi hau indarrean sartzerakoan:

- 9 Loreak
- 9 Pastak - pastelak
- 9 Gozokiak
- 9 Gaztak
- 9 Dietetika
- 9 Arrautzak
- 9 Tipulak